



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko azaroaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko azaroaren bian, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IÑARRA François

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio

Deialdiaren eguna : 2021eko urriaren 29a

Afitxatze eguna : 2021eko urriaren 29a

6.ERABAKIA ESKOLA PRIBATUER KANTINAKO DIRU-LAGUNTZA

Nomenklatura : 7.5

Jaun Auzapezak seinalatzen du herriko eskola pribatuek hautua egin dutela Ortzaizeko jantegiaren baliatzea. Zehazten du haurren zaintzeko ekarri laguntza jateko denboran, hautuzkoa dela.

Proposatzen du 90 euroko diru laguntza ematea San Mixel eta Ortzaizeko Ikastolako Ortaizen bizi diren haurrei, 2020-2021 ikasturterako.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren,

- **ERABAKITZEN DU** 90 euroko diru laguntza ematea San Mixel eta Ortzaizeko Ikastolan eskolatua eta Ortaizen bizi den haur bakotxari jateko denboraren zainketarako, hots 1980€ (22haur x 90 euro).

- **ERABAKITZEN DU** 90 euroko diru laguntza ematea Ortzaizeko Ikastolan eskolatua eta Ortaizen bizi den haur bakotxari jateko denboraren zainketarako, hots 1890€ (21 x 90€).

ZEHAZTEN DU behar den dirutza buxetan aurreikusia dela. Jaun Auzapezaren GAIN UZTEN DU diru laguntzaren ordaintzea.

Hor zirenen kopurua : 12
Balizko boz kopurua : 12
ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko azaroaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/11/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/11/05ean.

